

ORTOTIPOGRAFIA

Ikasmaterialen Aholku Batzordea
Estilo-liburuaren lehen atala

ORTOTIPOGRAFIA

Joxe Ramon Zubimendi

Ikasmaterialetako hizkuntzaren
egokitasun-irizpideak finkatzeko
Aholku Batzordea



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

ZUBIMENDI, Joxe Ramon

Ortotipografia / Joxe Ramon Zubimendi. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004

or. ; cm. – (Hizkuntz Prestakuntza ; 10)

ISBN 84-457-2127-5

1. Testu liburuak-Edizioa. 2. Estilo liburuak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Bilduma.

655.41:371.671.1

655.251.3

Argitaraldia:	1.a 2004ko irailean
Ale-kopurua:	3.000 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.euskadi.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa:	Gráficas Varona, S.A.
ISBN:	84-457-2127-5
Lege-gordailua:	S. 1.071-2004

SARRERA

Urteak dira Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Euskara Zerbitzuaren bidez, euskal ikasmaterialgintzari ekin ziona. Hezkuntzajarduna artez eta moldez aurrera eramateko behar-beharrezkoak diren lanabesen artean, izan ere, lehentasun osoa dute ikas- eta irakasmaterialek. Unibertsitate aurreko ikasmailetarako **euskarazko ikasmaterialek** sortu, argitara eman eta zabalkundea ziurtatzen saiatzen da Saila. Xede horixe du EIMAK, bere sorreratik.

Ikasmaterial horiek egokiak eta kalitatezkoak direla ziurtatzeko, hizkuntzazko eta edukizko azterketak egiten zaizkie eskola-materialei. Azterketa hori egiteko ardura, aspaldiko urteotan, teknikari berezituen eskuetan ipinia du Sailak. Hizkuntzazko egokitasun-azterketa, konkretuki, Euskara Zerbitzuak bideratzen du hainbat onesp-en-aztertzaileren lankidetzaz.

Azterketa modu horri dagokionez, bi dira onesp-en-aztertzaile horiek baliatzen dituzten egokitasun-irizpideak: alde batetik Euskaltzaindiaren arauak, gomendioak eta aholkuak; bestetik, berriz, *Ikasmaterialen Aholku Batzordeak* (IABk) emandako argibideak eta aholkuak. Xabier Mendiguren Bereziartu (Euskal Editoreen Elkarteak izendatua), Joxe Ramon Zubimendi (Euskaltzaindiak izendatua), Juan Gartzia Garmendia (EIZIEk izendatua), Andres Alberdi (Hizkuntzazko egokitasun-azterketarako adituen koordinatzailea) eta Euskara Zerbitzua dira aholku-batzorde horren kide.

Itsaso nahasia gertatzen da, askotan, euskararen itsasoa. Hizkuntzaren erabilera zuzen eta egokia izanik helburu, normalizazio-lan horren babes-portua urrutitxo ikusten da sarri. Itsaso nahasi horretan ez

da lan samurra izaten, nolahi ere, araugintzan diharduenarena. Baina ibili beste erremediorik ez dago, are hain oinarritzkoa den eginkizunean asmatu nahi badugu: gure eskola-umeei eta gazteei hizkuntza egokia eta kalitatezkoa eskaintzea.

Hala, bere-bereak dituen eskuduntzen harira, eskola-materialen *Estilo Liburua* osatzea du asmo aspaldidanik Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak. Esku artean duzun ortotipografiari buruzko liburuki hau ez da izango langintza bakarra, testuinguru zabalago horren hasierako zatia baizik. Hainbat dira euskarazko ikasmaterialen hizkuntzazko egokitasun-azterketa ahalbidetu aldera finkatu, adostu eta eguneratu beharreko hizkuntza-irizpideak. Horretan dihardu Ikasmaterialen Aholku Batzordeak. Liburuki hau duzu, hortaz, lehena, baina ez azkena. Dagoeneko egin da zenbait urrats, eta abian dira beste hainbat txosten ere (*Erdarazko egituren kalkoak, Morfosintaxia, Onomastika*, eta abar).

Ortotipografia izena eman diogun liburuki hau duzu, esan bezala, asmo zabal horren lehen emaitza. Aholku Batzordeko kide den Joxe Ramon Zubimendik atondu du, baina jende askoren ekarpenak jaso ditu bere ibilbide luzean. Aholku Batzordeko kideenak, lehen eta azken faseetan; baina ez haienak bakarrik. Ibilbide kalkulatu eta irekia eman nahi izan zitzaion hasieratik; irakasmaterialen esparrutik landa ere eragina izateko modukoa. Hartara, kontsulta zabala egin zen, eta denbora hartu zen azterketarako: urtebete pasa. Euskaltzain, idazle, onespeneztertzaile, argitaletxeetako teknikari, itzultzaile, eskoletako hainbat irakasle..., jende asko izan da lehen idazkuntza hari bere ekarpen-errepazo-zuzenketak eta hobespenez-oharrak egiteko aukera izan eta egin duena. Emankorra gertatu da esperientzia. Eskerrik asko denei.

Zabalkundeari eta eraginkortasunari begira, azkenik, Euskaltzaindiaren oniritzia ere behar zuen lanak. Horixe eskatu zitzaion Akademiari. Hona hemen bertako Jagon Sailaren erantzuna:

Euskaltzaindiko Jagon Sailak, Corpus batzordearen bidez, puntuz puntu aztertu du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, 2003ko apirilaren 11n, irizpen eske, Euskaltzaindiari aurkeztutako *Ortotipografia* lana.

Jagon Saileko Corpus batzordeak egoki eta taxuzkoa deritzo *Ortotipografia* lan horri, eta oniritzia eman dio.

Oniritzi honek ez ditu ez murriztuko eta ez baldintzatuko Euskaltzaindiak gerora alor horretan erabaki ditzakeenak.

Bestalde, Jagon Saileko Corpus batzordeak erabaki du *Ortotipografia* lanak eranskin gisa dakarren “Hitz elkartuen idazkera” izeneko atala ez epaitzea eta atal horri buruzko irizpenik ez ematea. Hortaz, oniritzi honek ez du bere barruan hartzen “Hitz elkartuen idazkera” izeneko eranskina.

Bilbon, 2003ko urriaren 17an

“*Egoki eta taxuzkoa deritzo*” Euskaltzaindiak, beraz, aholku-batzordeak egindako lanari. Berri ona da hori, esparru honetan lanean ari garenontzat: urtean ehunka ikasliburu idazten dituzten egileentzat, argitaletxeetan material horien orrazketa-lanaz arduratzen diren teknikarientzat eta, nola ez, ikasmaterial horiek hizkuntza aldetik egokiak diren ala ez aztertu behar duten espezialistentzat. Babes sendoa dakar Euskaltzaindiaren oniritziak, horrezaz gainera, Joxe Ramon Zubimendik eta batzordekide guztiek egindako lan-saioarentzat. Egindako lanaren babesa, batetik; eginbidean ditugun gainerakoekin antzera jokatzeko konfiantza, bestetik. Eskerrak eman nahi dizkio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskaltzaindiari. Bere oniritzia kontuan hartzen eta betearazten ahaleginduko da Saila, araubidezkoa denez.

Konpondu ez den arazo batek hor dirau, hala ere: Sailak ez du arazo hori ezkutatu nahi. “Hitz elkartuen idazkera” atala da, hain zuzen, auzitan dagoena. Euskaltzaindiak ez du atal hori epaitu, eta ez du horretaz irizpenik eman. Ulertzekoa da, Euskaltzaindiaren beraren ARAUetako baten –25. arauaren– *garapena* baitakar horrek eta, nolabait, jatorrizko arauaren estutzea inondik ere.

Gauzak horrela, zer eskakizun molde eta maila ezarriko dira hemendik aurrera, ortotipografiari dagokionez, EIMAKo onespenez-azterketetan? Erantzuna argia eta zehatza da:

a) Liburuki honek jasotzen duen *ortotipografia-araudia* eskatuko du Hezkuntza Sailak hemendik aurrera, bere laguntzaz kaleratzekoak diren ikasmaterialetan.

b) Hitz elkartuen idazkera kontuan, bestalde, ortotipografiako liburuki honetan egin den hautuari eustea irizten dio egokiena Ikas-

materialen Aholku Batzordeak. Iritzi hori gogoan izanik, horixe gomendatzen du Sailak bere alorreko ikasmaterialetarako.

c) Gomendio hori gomendio baino ez da, jakina. Euskaltzaindiak bere garaian ebatzi moduan, hitz elkartuetako marratxoaren auzi horretan idazkera bat baino gehiago daude, egon, aukeran (*kultur astea, kultura astea, kultura-astea*). Hala ere, aukerak aukera, logikoa eta zilegizkoa dirudi gutxieneko koherentzia bati jarraitu behar zaiola esatea: nahi den arau moldeari jarraitu, baina betiere koherente izanaz egindako aukerarekin. Horixe bera gomendatzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak.

Besterik ez, honenbestez. Beti bezala zeu zara, irakurle, aferan honetan epaile eta eragile. Euskararen onerako, ahalegin honetan asmatu izana da gure uste eta desio bakarra. Zernahi dela ere, ordea, jakizu zure ekarpen baliotsuak jasotzeko prest gauzkazula noiznahi. Hemen gaude: huiseus4@ej-gv.es.

Lehenengo liburuki hau probetxugarri gerta dakigula guztioi, eta bere ondoren etorriko direnen bide-erakusle argia gerta dadila. Hala desio du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, eta halaxe adierazten dut bere izenean.

Gasteizen, 2004ko martxoaren 9an

KONRADO MUGERTZA URKIDI
Hezkuntza Berriztatze zuzendaria

Euskaltzaindiaren oniritzia

Euskaltzaindiko Jagon Sailak, Corpus batzordearen bidez, puntuz puntu aztertu du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, 2003ko apirilaren 11n, irizpen eske, Euskaltzaindiari aurkeztutako *Ortotipografia* lana.

Jagon Saileko Corpus batzordeak egoki eta taxuzkoa deritzo *Ortotipografia* lan horri, eta oniritzia eman dio.

Oniritzi honek ez ditu ez murriztuko eta ez baldintzatuko Euskaltzaindiak gerora alor horretan erabaki ditzakeenak.

Bestalde, Jagon Saileko Corpus batzordeak erabaki du *Ortotipografia* lanak eranskin gisa dakarren “Hitz elkartuen idazkera” izeneko atala ez epaitzea eta atal horri buruzko irizpenik ez ematea. Hortaz, oniritzi honek ez du bere barruan hartzen “Hitz elkartuen idazkera” izeneko eranskina.

Bilbon, 2003ko urriaren 17an

ANDRES URRUTIA, Jagon sailburua

Aurkibidea

Sarrera	5
Euskaltzaindiaren oniritzia	9
Letrakera arrunta	13
Letrakera etzana	17
Letrakera lodia	21
Kakotxak	23
Oinarrizko adieraz besteko izen berezien deklinabidea	27
Erdal izen bereziak	31
Siglak	33
Laburdurak	37
Neurri-izenak	41
Ehunekoak	45
Ordinalak	47
Bi puntuen ondorengo idazkera	49
Barra	51
Marratxoa	53
Bibliografia nola aipatu	55
ERANSKINA	
Hitz elkartuen idazkera.....	61

Letrakera arrunta

1. Letra arruntez idazten dira testuak, bereziki zehaztuko ditugunak izan ezik.

2. Letra arruntez (eta kakotxik gabe) idazten dira honelako izen bereziak:

- Erljio, mito, ipuin zahar eta abarretan ageri diren izenak
Mari, Jainkoa, Ortzi, Zeus, Thor, Ala, Manitu, Wakantanka, Mikelats, Basajaun, San Martin, Apolo, Bako, Herkules, Thule, Atlantida...

- Berezko nahiz legezko pertsona, enpresa eta erakundeen izenak; baita erdal izena dutenenak ere

Jokin Retegi, Beatriz Arregi, Juan Luis Gallego eraikuntzak, Ocaso aseguruak, American Airlines, La Roncalesa, Ediciones B, Telecinco, Radio France, Euskaltel, Eusko Jaurlaritza, Euskaltzaindia...

- Izenordeak (goitzenak, ezizenak, izengaiztoak, izen artistikoak...)

Bilintx, Antso Jakituna, Orixe, Bernardo Atxaga, Sakabi, Urtain, Markinako Lehoia, Argala, Idi Zuria, Oilaloka, Xelebre, Txapas, Cantinflas, Bob Dylan...

Oharra:

Izenarekin batera datorrenean, kakotx artean idaztekoa da izenordea (letrakera etzana ere erabiltzen da horretarako): Indalezio Bizkarrondo «Bilintx», Nikolas Ormaetxea «Orixe», Jose Manuel Lujanbio «Txirrita»ren bertsoak...

- Orkestra, musika-talde, antzerki-talde, dantza-talde eta abarren izenak

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Oskorri, Eskifaia abesbatza, Lin Ton Taun, Beatles, Ttanttaka, Orain, Udaberri dantza-taldea...

- Komiki, film, antzerki eta ipuinetako protagonisten izenak eta etxe-abereei ezarritako banakako izenak

Pintto, Bat, Xola, Xarpa, Linda, Mixi, Nala, Pluto, Milu, Tintin, Asterix, Corto Maltese, Sam Spade, Indiana Jones, Sherlock Holmes, Maigret, Madame Kontxesi, James Bond, Superman, Philip Marlowe...

- Etxe, baserri, mendi, ibai, zubi, etxadi, kale, plaza, auzo, herri, hiri eta abarren izenak; baita denda, taberna, zinema, antzoki, jatetxe, ostatu, hotel, dantzaleku eta abarrenak ere

Arotzenea, Aiztondo baserria, Ernio mendia, Araxes ibaia, Aliriko zubia, Errotaburu etxadia, Artekale, Foruen plaza, Urdaiaga auzoa, Zubieta herria, Bilbo hiria, Irutxulo oihal-denda, Denontzat taberna, Gure Txokoa elkarte, Astoria zinema, Arriaga antzokia, Akelarre jatetxea, Iturri ostatua, Arantzazu hotela...

- Merkataritzako marka, modelo eta salgaien izenak

Citroen Vip berria, Remelluri ardo zaharra, Cola Cao beroa, Coca Cola hotza, bi Aspirina...

Oharra:

Letra xehez ere idatz daitezke izen arrunt bihurtu diren markak: esate baterako, aspirina.

- Lege, dekretu, arau eta gainerako agiri ofizialen izenak

6/89 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

222/2001 Dekretua, urriaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen duena.

Agindua, 1999ko maiatzaren 11koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle-lantaldeei laguntzak emateko deia egiten duena.

3. Letra arruntez (eta punturik gabe) idazten dira siglak, baita izen osoa letra etzanez idatzi beharreko izenenak ere.

Niri berdin dit AEB irakurri nahiz Ameriketako Estatu Batuak irakurri. Orduan hasi zen EGLU argitaratzen; alegia, *Euskal Gramatika: Leben Urratsak*.

4. Letra arruntez idazten dira, nazioarteko arauak betez, zientziaren alorreko hainbat sinbolo-eta: unitateak, elementu kimikoak... Beraz, matematika, fisika, teknologia eta gisako zientziak idatziz lan-tzean, nazioarteko estandarraren arabera erabiliko da letrakera arrunta euskaraz ere (ikus, adibidez, neurri-izenen atala).

Letra arruntez idazten dira, esaterako, h (ordu), min (minutu), s (segundo), g (gramo), kg (kilogramo), m (metro) eta cm (zentimetro).

5. Letra arruntez idazten dira Interneteko helbideak.

www.euskaltzaindia.net, info@euskaltzaindia.net, urlia@auskalo.com...

6. Letra arruntez eta kakotx artean idazten dira:

- Hitzez hitzeko aipamenak

Oharrak zera dio: «Legebiltzarraren erabakien jakinarazpenak dira legeak, eta Gobernuak bere osoan hartutako erabakiak dira Dekretuak. Baina Aginduak (eta horrelakoak dira Ebazpenak eta Deialdiak) maila beheragoko organoren baten erabakiak dira; horregatik, Agindu bakoitzaren izenean, organoa zehazten da lehenik».

- Iragarki, armari eta abarretako ikurritzen aipamenak

Orduan ikusi zuen, ateburuan erdi ezkutaturik, “Ezina ekinaz egina” idazkuna.

Gogoratu Euskadi Irratiaren «Esan eta izan» leloa eta ETBko «Ibai zikina? Hi bai zikina!» iragarkia.

- Norbaiten izenaz gainera, izenaren ondoren aipatutako norbait horren izenordea(k)

Indalezio Bizkarrondo «Bilintx», Nikolas Ormaetxea «Orixe», Jose Manuel Lujanbio «Txirrita»ren bertsoak...

- Argitalpen nagusiago baten zati baizik ez diren artikulua eta abarren izenak

Argia aldizkariaren joan den asteko aleak dakar “Festarik behar bada” artikulua.

Bihar, *Goenkale* telesaileko atal berezia, “Gabon, bonbon” izenekoa.

- Hitzaldi, mahai-inguru, erakusketa eta abarren izenak

Euskaltzaindiaren XV. biltzarrean, Bilbon, “Euskalkiak gaur” mahai-ingurua egin zen.

Altxerri galerian dago Fernando Arenazaren “Begi-bihotzez” saileko margolanen erakusketa.

7. Letra arruntez idazten dira ortografiako puntuazio-markak (komak, puntu eta komak, puntuak...), marra ortografikoak, galdera-markak, harridura-markak eta itxitura-markak (parentesiak, taketak, giltzak...); bestelako letrakera duten testuetan izan ezik.

Euskal Herrian bertakoak dira gaztainondoa (*Castanea sativa*) eta pagoa (*Fagus sylvatica*), erdal jatorriko izenagatik besterik dirudien arren.

Azter dezagun [-(e)kiko + izenondoa + izan] kasua.

Letrakera etzana

1. Letra etzanez idazten dira argitalpenen izenak: liburuen eta tesien izenburuak, aldizkari (egunkari, astekari, hilabetekari...) eta komiki guztien izenak, ikus-entzunezko (abesti, antzerki, film, disko, irratsaio, telesaio...) guztien izenak eta bestelako artelan (pintura, eskultura...) jakinen izenak.

Orixeren *Euskaldunak* liburua, Mikel Amondarainen *Baliabide teknikoak gorren irakaskuntzan* tesia, *Argia* aldizkaria, *El Capitán Trueno* komikia, *Blade Runner* filma, *Goizean behin* irratsaioa...

Letra etzanez idatzitako izen horiek, gainera, kakotx artean sartu behar dira beste izenburu baten zati direnean.

Atzo aurkeztu zen Orixeren “*Euskaldunak*” edo *paradisu galdua* liburua.

Oharra:

Baina lana argitalpenaren zati besterik ez denean, hau da, ale bereko beste zenbait lanekin batera argitaratua denean (aldizkariako artikulua bat, liburuko atal bat, zenbait kantaren arteko abesti bat...), orduan ez da letra etzanez idatzi behar izena, baizik eta letra arruntez eta kakotx artean.

Argia aldizkariaren joan den asteko aleak dakar “Festarik behar bada” artikulua.

2. Letra etzanez idazten dira izen berezia ezarri izan zaien itsasontzi, hegazkin, espaziontzi, ezpata, kanpai, kanoi eta abar jakinen izenak.

Hondarribikoen *Ama Guadalupekoa* trainerua, Tolosako *Nairobiarra* autobusa, Txirri eta Mirri *Tortolika* hegazkinean, emakume bakarra *Mir*

espaziontzian, *Excalibur* ezpata, karlisten *Izeba Maria* kanoia eta alemanen *Berta Handia* kanoitzarra...

Oharra:

Baina letra arruntez idazten dira ibilgailuen markak eta modeloak eta, oro har, gainerako tresna eta tramankuluen izenak ere.

Garajea, berriz, Renault Espace bat eta bi bizikleta Orbea.

Ogia txigortzeko, Fagor Elegance duzu egokiena.

Lurrera eraitsi dituzte Concorde bat eta Boeing 747 bat.

3. Letra etzanez idazten dira, eta letra larriz hasita, izakiak (animaliak, landareak, birusak...) zehazki aipatzeko dauden latinezko izen zientifikoak.

Euskal Herrian bertakoak dira gaztainondoa (*Castanea sativa*) eta pagoa (*Fagus sylvatica*), erdal jatorriko izenagatik besterik dirudien arren.

Izokina (*Salmo salar*) oso ugaria omen zen, lehen, Ori ibaiko uretan. Bi etsai zituen: gizakia eta igaraba (*Lutra lutra*). Baina, azkenean, kutsaduraren kutsaduraz galdu ziren Oriako izokinak.

Vaccinia birusaren diametroa 0,267 mikrakoa da.

Baina letra arruntez idazten da izen zientifiko horietako zenbaitek, bereziki landareen izenek, inoiz amaieran daramaten laburdura.

Ekainaren hasieran landatu edota kimatu behar da mimosa (*Acacia dealbata* L.).

4. Letra etzanez idazten dira testuan nabarmendu nahi direnak:

- Hitza ohartukiago adierazteko

Lanean dagoela? Ez dira gauza bera lanean *egotea* eta lan *egitea*.

- Hitzari berari buruz jarduteko (metahizkuntza)

Beharrezkoa da, hala dagokionean, koma jartzea *eta* lokailuaren aurrean.

Azter dezagun [-(*e*)*kiko* + izenondoa + *izan*] kasua.

- Hitzaren esanahia edo adiera aipatzeko

Haurrek *pitxitxi* esaten diote katuari.

- Hitza jakinaren gainean gaizki idatzita dagoela adierazteko Hauxe bizikleta *edela!* Honen gainean *kolika-kolika* ibiliko nauk.

- Adiera bereziko hitza dela adierazteko Ertzainak agertzean, bazterrera bota zuen *txokolate* puska.

- Erdal hitza dela adierazteko Baina zer *password* eta zer arraio!?

Baina letra arruntez idazten dira Euskaltzaindiak batasunerako onetsitako erdal jatorriko hitzak: camping, laser, radar... Zalantzasukoetan, ikus *Hiztegi Batua*.

Noiz hasi zinen marihuana erretzen?

5. Letra etzanez idazten dira, nazioarteko arauak betetz, zientziaren alorreko hainbat sinbolo-eta: magnitudeak, ekuazioak... Beraz, matematika, fisika, teknologia eta gisakoak idatziz lantzean, nazioarteko estandarren arabera erabiliko da letrakera etzana euskaraz ere.

Letra etzanez adierazten dira, besteak beste, P presioa, t denbora, T tenperatura eta c argiaren abiadura.

6. Letra etzanez (edo lodiz edo kakotx artean) idatzitako hitzak deklinatzean, letra arruntez erantsi behar zaie aldian aldiko deklinabide-atzizkia; baita horrek “-a” itsatsiaren galera badakar ere. Ez dago marratxoia erabili beharrik bien arteko lotura egiteko, eta marratxorik gabeko lotura hobesten da.

Poemako “begietan *eoki*” dela eta, uste dut *eboren* forma dugula aurrean, ez *egonena*.

Honako hau, ordea, *Laborantzako liburutik* hartua da; ez *Hiztegi Batutik*.

Andu Lertxundiren *Hamaseigarrenean aidanez*eko pertsonaia da Kornelio.

Mikel Zarateren *Euskal literaturatik* hartutako adibidea duzu hori.

Horrelakoetan, *obiturei* begiratzen die historialariak, ez *jarrerei*.

7. Egunkarietako izenburuetan-eta, salbuespenez, ez da letra etzanik erabiltzen, eta kakotx artean eman ohi dira letra etzanez idatzi beharrekoak.

Gogoratu, bestalde, liburuen azalean, aldizkarien izenean, iragarkietan eta halakoetan, salbuespen modura, erabil daitekeela letra larririk, ortografiako legeez dagokienaz gainerakorik.

Hor ari zen *Euskaldunon Egunkaria* ere irakurleak euskaraz trebatzen.

Esaterako, hainbat alez osatutako liburu-bildumen titulueta-ko hitz nagusiak letra larriz hasita idazten dira testu barruan ere. Baita, ale bakarra izan arren, argitaraldi argitaraldi osatuz doazen obren titulueta-ko hitz nagusiak ere.

Lan bikainak dira *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* eta *Orotariko Euskal Hiztegia*.

Argitaraldiz argitaraldi nabarmen osatuago helduko zaigu *Hiztegi Batua*.

Oharra:

Kontu eman «hitz nagusiak» esan dugula (izenak, izenondoak...); horrelako lanen titulueta-ko hitz guzti-guztiak ez baitira letra larriz hasita idaztekoak.

Gogoan izan, hala ere, letra larriaren erabilera horiek denak salbuespenak direla.

8. Adibideak eta gisakoak ematean, ez da gomendagarria letrakera etzana hartzea oinarriztat; izan ere, horrela jokatuz gero, sistema guztia berrantolatu behar da. Adibideak, aipamenak eta abar testu arruntetik bereizteko, askoz hobe da aukerako baliabide tipografikoak erabiltzea: letratipoa aldatzea, letratipoaren neurria aldatzea...

Letrakera lodia

Letra lodia nekez irakurtzen da, baina erraz ikusten. Horregatik da horren erabilia iragarkietan: hain zuzen ere, oso nabarmena delako. Beraz, oso erabilia da publizitatean, aski erabilia aldizkarietan (koloretako irudiz jositako astekarietan-eta gehiago egunkarietan baino) eta gutxi erabilia liburuetan.

Eguneroko testugintzan edota liburugintzan, letra lodiz idazten dira izenburuak, atalburuak, azpiatalburuak eta gisakoak. Horrez gainera, oso gutxitan erabiliko da, ez bada ohar-markaren bat ikusarazteko nahiz letra etzanez idatzitako testu zatietako hitzen bat nabarmentzeko edo.

Hiztegietan bai, sarri erabiltzen da; begiak albait arinen aurki dezan bila dabilen hitza. Baina hiztegi-gintza alor berezia da eta tipografia-arau bereziak ditu, honako adibide hauetan ikus daitekeenez:

agiri. *iz.* (1761). Zerbait frogatzeko, zerbaiten berri emateko balio duen izkribua. Ik. **dokumentu.**

agiritegi. *iz.* (1945). Artxiboa.

agirizain. *iz.* (1859). Artxibozaina.

agitu, agi, agitzen. da *ad.* (1760). Gertatu.

Adibide horietako zenbait erabilera tipografiko okerrak edo desegokiak lirateke testugintza arruntean. Esate baterako:

- Laburdurak (iz. eta ad.) letra arruntez idatzi behar dira, ez letra etzanez.
- Hitz laburrak ez dira laburtu behar. Ez da egokia *ikus* hitza laburturik idaztea testu arruntetan.
- Ez da egokia *dokumentu* hitza letra lodiz idaztea testu arrunt batean.
- Ez da egokia letraren neurria horrela aldatzea testu arrunteko lerro batean.

Baina, esan bezala, hiztegitza alor berezia da eta tipografia-arau bereziak ditu.

Kakotxak

Alboko kakotxak [« »] dira nagusi, baina kasu sinpleetan kakotx bikoitzak [“ ”] ere erabil daitezke.

1. Kakotx artean (eta letra arruntez) idatzi behar dira:

- Hitzez hitzeko aipamenak

Azalpenak zera dio: «Legebiltzarraren erabakien jakinarazpenak dira Legeak, eta Gobernuak bere osoan hartutako erabakiak dira Dekretuak. Baina Aginduak (eta horrelakoak dira Ebazpenak eta Deialdiak) maila beheragoko organoren baten erabakiak dira; horregatik, Agindu bakoitzaren izenean, organoa zehazten da lehenik».

Oharra:

Hitzez hitz aipatutako pasarteak, berez, kakotx arteko zatirik balu jatorrizko testuan, orduan beste kakotx mota bat erabili behar da aipamen osoaren hasieran eta bukaeran. Hauxe da kakotx moten maila-antolaketak: «*aaa “bbb ‘ccc’ bbb” aaa*».

- Iragarki, armarri eta abarretako ikurritzen aipamenak

Orduan ikusi zuen, ateburuan erdi ezkutaturik, “Ezina ekinaz egina” idazkuna.

Gogoratu Euskadi Irratiaren «Esan eta izan» leloa eta ETBko «Ibai zikina? Hi bai zikina!» iragarkia.

- Norbaiten izenaz gainera, izenaren ondoren aipatutako norbait horren beraren izenordea(k)

Indalezio Bizkarrondo «Bilintx», Nikolas Ormaetxea «Orixe», Jose Manuel Lujanbio «Txirrita»ren bertsoak...

- Argitalpen nagusiago baten zati diren artikulua eta abarren izenak

Argia aldizkariaren joan den asteko aleak dakar “Festarik behar bada” artikulua.

Bihar, *Goenkale* telesaileko atal berezia, “Gabon, bonbon” izenekoa.

- Hitzaldi, mahai-inguru, erakusketa eta abarren izenak
- Euskaltzaindiaren XV. biltzarrean, Bilbon, “Euskalkiak gaur” mahai-ingurua egin zen.

Altxerri galerian dago Fernando Arenazaren “Begi-bihotzez” saileko margolanen erakusketa.

2. Kakotx artean sartu behar dira (eta dena letra etzanez idatzi) beste izenburu baten zati diren izenburuak-eta.

Atzo aurkeztu zen *Orixeren “Euskaldunak” edo paradisu galdua* liburua.

3. Kakotx artean sartu ohi dira ironiaz (hitzaz bestera) adierazitako hitzak: alegia, hitz jakin baten adiera ohiko esanahiaren aurkakoa dela adierazi nahi denean.

Oso gizon «zintzo»aren ospea zuen diruzainak. Kutxan genuen guztia hartuta hanka egin zuen!

Oharra:

Letra etzanez ere adieraz daitezke horrelakoak.

4. Honela eragiten diote kakotxek puntuazioari amaieran:

- Kakotx artekoa puntuz, komaz, puntu eta komaz edo bi puntuz amaitzen denean, galdu egiten da amaierako marka hori: ez da ipini behar. Bai, ordea, kakotxen ondoren, perpaus osoari dagokion puntuazioa.

«Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera».

Gogoratu haren hitzak: «Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera». Hori idatzi zuena ez zen nornahi, Koldo Mitxelena baizik.

Oharra:

Hitzez hitzeko aipamenari akotazioak eranstea, alboko kakotxak erabili behar dira; baina aipamenaren hasieran eta bukaeran bakarrik (gero, testuok inprentara eramatean, begiratu kakotx motak).

«Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak –dio Mitxelenak– baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera».

Molde hori hobesten dugu, eta ez honako hau:

«Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak», dio Mitxelenak, «baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera».

- Kakotx artekoa hiru puntuz, galdera-markaz nahiz harri-dura-markaz amaitzen denean, ez da galtzen amaierako marka hori: ipini egin behar da. Eta ondoren, kakotxen ondoren, perpaus osoari dagokion puntuazioa.

Hala esan dio: «Saiatu, saiatu naiz; baina...». Eta gero: «Baina nor zara zu ni horrela estutzeko?». Eta geroago: «Alde hemendik!». Eta zer egin ez dakiela utzi du.

- Kakotx artekoa puntuazio-markarik gabe amaitzen denean, kakotxen ondoren jarri behar da, hala dagokionean, puntua, hiru puntu, galdera-marka, koma edo dena delako marka.

Gogoratu haren hitzak: “bildu eta hitz egin”, eta ahaleginak egin behar ditugula.

Oso gizon «zintzoa» genuen diruzaina, oso «maitagarria».

Oinarrizko adieraz besteko izen berezien deklinabidea

Euskaltzaindiak aspaldi arautu zuen izen berezien deklinabidea; zehazki arautu ere, gure atal honetakoa izan ezik. Baina arazoa zera da: zenbaitek ez duela inoiz ere kentzen izenaren bukaerako *-a* artikulua eta, beraz, ez duela deklinatzen izenaren erroa. Jokaera trakets horren ondorio dira honelako okerrak:

*Euskaltzaindiara, Euskaltzaindiatik, Euskaltzaindiako... OKER

Euskaltzaindira, Euskaltzainditik, Euskaltzaindiko... ZUZEN

*Eusko Legebiltzarrara, Legebiltzarratik, Legebiltzarrako... OKER

Eusko Legebiltzarrerara, Legebiltzarretik, Legebiltzarreko... ZUZEN

*Oñatiko Unibertsitateara, Unibertsitateako... OKER

Oñatiko Unibertsitatera, Unibertsitatetik, Unibertsitateko... ZUZEN

Ikusten denez, oker horixe bera egiten da *udal* eta antzeko zenbait izen arruntekin ere, eta bereziki urteko hilen eta asteko egunen izenekin:

*Gure udalara, udalatik, udalako... OKER

Gure udalera, udaletik, udaleko... ZUZEN

*Iazko urtarrilako, otsailako eta martxoako soldatak. OKER

Iazko urtarrileko, otsaileko eta martxoko soldatak. ZUZEN

*Aurtengo apirilari, maiatzari eta ekainari sartutako orduak. OKER

Aurtengo apirilari, maiatzean eta ekainean sartutako orduak. ZUZEN

*Astelehenetik asteazkenara, astearteako eta ostegunako, ostiralatik...
OKER

Astelehenetik asteazkenara, astearteako eta osteguneko, ostiraletik...
ZUZEN

Bada, bestalde, izen arrunta eta izen berezia nahastetik sortutako okerririk ere:

Donostiako bulebarrean atzera eta aurrera dabil jendea.

Donostiako Café Boulevarden elkartu ginen. [Boulevard izeneko kafetegian]

Baina gatozen harira, idazkera landuan arazoak sortzen dituzten izen berezien auzira. Bi jokabide ditugu aukeran:

Deklinabideko katramilak saihestea (ikus 1. puntua).

Izena deklinabidean sartzea (ikus 2. eta 3. puntuak).

1. Deklinabideko katramilak saihesteko, egokiena da zalantza eragiten duten izen bereziak batera atzizkirik gabe idaztea (absolutiboan utziz izen-sintagma), aukerako baliabideak erabiliz.

Berriak aldizkariko artikulu berbera dakar *Laiaketan* aldizkariak ere.

Darwinen *Espezieen jatorria* liburutik hartutako adibideak.

Atxikimendu berezia omen zion *Kontxesiri* kantuari.

Trebetasun handia erakutsi zigun *Aitorkizunak* itzultzean.

Bereziki aipagarria da *Literatura motak* lanak dakarren sailkapena.

Urte hartantxe argitaratu zuten *Errusiar literaturak* delakoa.

Lauaxetak *Euskaltzaleak* izeneko taldearekin zituen harremanak aipatu ditut.

Toki Ona jatetxera joan gara.

Oharra:

Estrategia nagusi horren arriskua estiloaren alorrekoa da; izan ere, oso sarri erabiltzen bada, arintasuna gal daiteke testu laburretan. Hala ere, bistan denez, galera baino nabarmen gehiago dakar irabazia.

2. Izen berezi eta titulu askotan bat datoz izena eta izana: *Hiztegi Batua* hiztegia da, *Laborantzako liburua* liburua da, *Euskaldunon Egunkaria* egunkaria zen, *Erbesteke oroitzapenak* oroitzapen-liburua da, *Aitorkizunak* aitorten-liburua da, *Gerrako kronikak* kronika-liburua da, *UNESCOren albistaria* albistez beterik zetorren, *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* gramatika-liburua da, *Orotariko Euskal Hiztegia* hiztegia da... Horrelakoak deklinabide arruntean sartu behar dira, izenaren erroari erantsiz deklinabide-atzizkia; baita bukaerako *-a/-ak* artikulua galtzen bada ere.

Alderatu *Orotariko Euskal Hiztegitik* hartutako adibideak eta *Euskal Gramatika: Lehen Urrats*etako liburukietan datozenak.

Gerrako kroniketatik atera dut: alegia, *Gerrako kronikak* liburutik.

Iturriagaren *Ipuinetan* dator hori: hots, Iturriagaren *Ipuinak* liburuan.

Orixek itzulitako San Agustinen *Aitorkizunen* ale bat.

Hiztegi Batuko zerrendaz galdezka heldu zen *Euskaldunon Egunkari*ko kazetaria.

3. Zenbait izen berezi eta titulu deklinatzean, ordea, zalantzak sor daitezke izenari atzizkia eransterakoan. Auzia zertan den azaltzeko, har dezagun, adibidez, *herri* hitza, NONGO kasuan eta mugatu singularrean:

1. Izen arrunta denean, *herriko* da zuzena: herriko kazetariak.

2. Izen berezia denean, *Herriko* da zuzena: Euskal Herriko kazetariak.

3. Oinarrizko adieraz besteko izen berezia denean, ordea, *Herriako* da zuzena: *Herriako* kazetariak (esan nahi baita *Herria* aldizkariko kazetariak).

Hirugarren adibideko izen berezi horrek izendatzen duena ez baita *herria*, baizik eta *Herria* aldizkaria. Izan ere, hor, *Herria* ez da *herri*; aldizkari bat baizik. Kasu horretan, beraz, izena eta izana ez datoz bat,

eta hortxe dago koska, hortxe dago zalantzaren eta salbuespenaren sorburua.

Izena eta izana bat ez etortze hori, jakina denez, sarri gertatzen da izen berezietan eta tituluetan: *Garoa* eleberria da eta ez garo-landarea, Osasuna futbol-taldea da eta ez osasuna, *Argia* astekaria da eta ez argia, Euskadi Gaztea irratia da eta ez inolako Euskadi... Horrelakoei deklinabide-atzizkia eransterakoan gertatzen da salbuespena, izenak ez baitu galdu behar bukaerako *-al/-ak* artikulua. Beraz, oinarrizko adieraz besteko izen berezi horiek oso-osorik agertu behar dute beti.

Garoatik eta *Kresalatik* hartutako adibideak azaldu zituen.

Herriatik eta *Deiatik* heldu zaizkigu eskari horiek.

Pozik ageri dira Osasunako jokalaria *Argiako* argazkian.

Orixeren *Euskaldunakeko* eredia eta Lauaxetak *Euskaltzaleaken* agertutakoa.

Espezieen jatorriatik hartutako datuak datoz *Berriaken*.

Kirolakeko artikuluan irakurri ditut Olinpiar Jokoei buruz Lagun Onak-eko jokalariek egindako adierazpenak.

Bernardo Atxagaren *Obabakoaken* irakurri nuen.

Euskadi Irratiko kazetariak eta Euskadi Gazteakoak elkarren lankide dira.

Toki Onan bazkaldu dugu.

Baina, esan bezala, egokiena da zalantza eragiten duten izen bereziak batere atzizkirik gabe idaztea, nahasketa bideak saihestuz beti.

Eusko Alkartasunera eta Herri Batasunean / Batasuna alderditik

Gazte Abertzaleetako eta Gazte Sozialistetako kideak / Senideak taldearen

Erdal izen bereziak

1. Euskara baturako onartutako erdal izen bereziak (leku-izenak edota bestelakoak) Euskaltzaindiak erabaki bezalaxe idatzi behar dira.

Valentzia, Kordoba (Espainia), Córdoba (Argentina), Aragoi, Madril, Britainia...

Oharra:

Azentu grafikorik gabe ere idatz daitezke León/Leon, Málaga/Malaga, Roselló/Rosello, René Bèrtol / Rene Bertol, Jesús Pérez / Jesus Perez eta abar. Etxekotu gabeko izen-deituren kasuan, ordea, azentu grafiko eta guzti idaztea hobesten da: René Bèrtol, Sóstenes...

2. Batasunerako onartu gabeko erdal izen bereziak txertatzen direnean euskarazko testuan, erdarazko izen horiek jatorrizko beren ortografiako lege-arauak betez idatzi behar dira, ahal den neurrian.

Cowie, Federici, Hausmann, Hotopf, Kjellmer, Kozłowska, McLean...

Oharra:

Gureaz bestelako alfabetoa darabilten hizkuntzetakoak idazteko, ikus horretarako dauden transkripzio-taulak.

3. Nahasgarri gerta daitezkeen erdal izen bereziak

a) Deklinabide-atzizkirik gabe idatzi pasarteko lehen aipamenean.

HASIERAN

Koike hizkuntzalaria

Dzierzanowska poloniarra

GERORA

Koikek idatzitako tesia

Dzierzanowskarentzat

b) Pasarteko lehen aipamenean izenaren eta deklinabide-atzizkiaren artean marratxoa jarritz ere konpon daiteke arazoa (bereziki “r” letraz amaitutakoetan). Ikus 53. or.

Dzierzanowska-rentzat oso esanguratsua da Koike-k idatzitako tesia.

Pasteur-en aurkikuntza goraiatu zuen Letelier-ek.

Siglak

1. Letra larriz, letrakera arruntez eta punturik gabe idazten dira siglak; baita izen osoa letra etzanez idatzi beharreko izenen siglak ere.

EAE, HPS, HABE, AEK, EHU, EUTG, MCC, ELA, LAB, UGT, BBK, BBVA, BEZ, CD, DVD...

Orduan hasi zen EGLU argitaratzen: alegia, *Euskal Gramatika: Leben Urratsak*.

Bada, ordea, salbuespenik:

1. Erabiliaren erabiliz izen arrunt bihurtu direlako letra xehez idazten direnak: adibidez, radar (radio detecting and ranging).

2. Letra xehez ere idatzi ohi den zenbait sigla eta akronimo: UNESCO/Unesco, RENFE/Renfe, SEAT/Seat, ICONA/Icona...

3. Testu osoa letra larriz dagoenean (tituluetan eta), puntu eta guzti idatz daitezke siglak: U.E.U./UEU LAGUNTZA ESKE, A.E.B./AEB KINKA LARRIAN...

2. Siglak laburbiltzen duen izena osorik adierazten da testu bakoitzeko lehen agerraldian, irakurlearentzat oso sigla ezaguna denean izan ezik.

EAE (Euskal Autonomia Erkidegoa) aipatu ondoren, EUTG (Estudios Universitarios y Técnicos de Gipuzkoa) eta MCC (Mondragón Corporación Cooperativa) goraiatu zituen atzerritarrak.

Europar Batasuna (EB) eta Ameriketako Estatu Batuak (AEB) elkar zaintzen ari dira.

OEH (*Orotariko Euskal Hiztegia*) lagungarri ona da EGAtik gorako agiria eskuratzeko.

Aldizkarien sailean, begiratu RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos) eta BRSVAP (Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País).

3. Deklinatzerakoan (eta ahoskatzerakoan), kontuan izan sigla batzuk letraka irakurtzen direla, eta beste batzuk, silabaka.

EHU (e-hatxe-u): Euskal Herriko Unibertsitatea

EGA (e-ga): Euskararen Gaitasun Agiria

Oharra:

Bada zati bat letraka eta bestea silabaka irakurtzen den siglarik ere: PSOE (pe-so-e).

4. Sigla eta deklinabide-atzizkia marratxorik gabe batzen dira, salbu eta siglaren azken letra berberaz hasten denean atzizkia ere.

UEUn, hizlarietako batzuk ETBko kazetariak dira; beste batzuk, berriz, EHUtik joandako irakasleak.

BBK-k adierazi du AEK-ko ikasleek gogotik eskertu dutela BBKren dirulaguntza.

Oharrak:

1. Siglaren azken letra R gogorra denean, ez da “r” errepikatu behar lotura egiteko. Beti ere, atzizkiaren berezko “r”ari eutsi egin behar zaio.

ELKARen lana goraiatu du RPRko diputatu ohiak.

RPR-ren izenean dator.

2. Testu osoa letra larriz dagoenean, hona aukerak:

U.Z.E.I.REN GUNE BERRIA / UZEI-REN GUNE BERRIA

5. Deklinatzerakoan, izen berezitzat hartzen da sigla, eta leku-izen bereziak bezala deklinatzen, izen arrunt gisako siglak izan ezik.

EUDELeko arduradunak AEBra joan dira, Renoko agintariei-eta hemengo udalen berri ematera.

EUTGko irakasle asko Deustuko Unibertsitateko ikasle ohiak dira.

Oharra:

Sigla batek izen bereko hainbat subjektu baldin baditu, orduan sigla hori pluralean deklinatuko da hala dagokionean. Horixe da, esate baterako, EKT (Euskal Kultura Taldea) siglaren kasua, honako adibide honetan ikus daitekeenez:

Ahozkotasuna ikertzen ari dira Durangoko EKTn eta Gipuzkoako EKTetan.

6. Izen arrunt gisako siglak, ordea, hitz arruntak bezalaxe deklinatuko dira. Sail horretakoak dira NA (Nortasun Agiri), BEZ (Balio Erantsiaren Zerga), CD (Compact Disc), PC (Personal Computer), GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde) eta abar, eta baita hiztegi berezietako DM (datu mota), DMA (Datu Mota Abstraktu) eta beste asko ere.

Non grabatu duzu CDa?

Nork itzali ditu PCak?

Zenbat ordaindu duzu BEZa?

Esan berriro zure NA-aren zenbakia.

Bihar hastekoa da GKE-en biltzarra.

Dakizunez, datu mota (DM) guztiak ez dira datu mota abstraktuak (DMA); beraz, ongi bereizi behar dira DMak. Esaterako, DM hori DMA bat da, oso ugariak baitira DMak eta DMA-ak.

Laburdurak

1. Laburdurak letra arruntez idazten dira. Oso laburdura gutxi erabili behar da idazki arruntetan, helbideetan izan ezik:

jn. (jauna), and. (andrea), k. (kalea, karrika), esk. (eskuina), ezk. (ezker-
rra), zk.g. (zenbakirik gabea), pl. (plaza), etorb. (etorbidea), pas. (pasea-
lekua), zum. (zumardia), zehb. (zeharbidea), etx. (etxea), bas. (baserria),
ind. (industrialdea), pol. (poligonoa)...

Hona gutunazal eta abarretarako hainbat helbideren idazkera-adibideak:

Estafeta, 8 / Estafeta k., 8 / Estafeta kalea, 8 / Estafeta, 8, 2. ezk.

Etxebeste, 7, 3-B / Etxebeste pl., 7, 3-B / Etxebeste plaza, 7, 3-B

Allerru ind. / Allerru industrialdea

Padura zehb., zk.g. / Padura zeharbidea, zk.g. / Padura zeharbidea, zen-
bakirik gabea

Baina ez da laburdurarik erabili behar helbideak esaldi barruan txerta-
tzean:

Estafeta kaleko 8tik

Etxebeste plazako 7ra

Sua dago Askatasunaren etorbidean, 12an. / Sua dago Askatasunaren
etorbideko 12an.

Horrelakoetan, jakina, deklinaturik eman behar dira “kale, plaza” eta
abar.

2. Esanahi jakina eta oso ezaguna duten laburdurak bakarrik erabiliko dira (bai euskarazkoak eta bai erdal jatorrikoak):

adib. (adibidez), or. (orrialdea), fra. (faktura), koop. (kooperatiba), tel. (telefonoa), etab. (eta abar), etc. (etcetera), id. (idem), zk. (zenbakia), k.k. (kontu korrontea)...

Oharra:

Beti “or.” erabiltzea hobesten da “*orrialdea*” nahiz “*orrialdeak*” laburturik ematerakoan.

Ikus 14. or. / Ikus 14.-19. or. / Ikus 14., 16. eta 19. or.

3. Testu berezietan, alorrean alorreko laburdurak ere idatz daitezke; baina sarreran agertu beharko da erabilitako laburdura ezohiko edo antzemangaitzen zerrenda eta horietako bakoitzaren esanahia.

Hiztegietan sarri ageri dira iz. (izena), ad. (aditza), Gram. (gramatika) eta beste.

Oharra:

Testu berezietan izan ezik, hitz laburrak ez dira laburtu behar. Ez da egokia, esate baterako, *ikus* hitza laburturik idaztea (ik.) testu arruntetan; baina hiztegietan, adibidez, ulermenaren lagungarri izaten da laburdura hori. Beste horrenbeste gertatzen da *euro* hitzarekin ere: ez da laburtu behar, bere ikurraz (€) ordezkatzeko izan ezik.

4. Laburdurak puntu eta guzti idatzi behar dira (siglak, akronimoak eta neurri-izenak ez bezala).

Salbuespen ezaguna da “vs” laburdura: alegia, *versus* (aurka, kontra...) hitzaren laburdura.

5. Laburdura gehienak letra xehez idazten dira, baina ez denak:

Letra larriz: P.D. (post data), P.S. (post scriptum), N.B. (nota bene), R.I.P. (requiescat in pace), G.B. (goian bego)...

Letra larriz eta xehez: K.a. (Kristo aurreko), K.o. (Kristo ondorengo)...

6. Asteko egunen eta urteko hilen izenen laburdurak ere letra xehez eta puntu eta guzti idatzi behar dira:

Egunak: al. (astelehena), ar. (asteartea), az. (asteazkena), og. (osteguna), ol. (ostirala), lr. (larunbata) eta ig. (igandea).

Hilak: urt. (urtarrila), ots. (otsaila), mar. (martxoa), api. (apirila), mai. (maiatza), eka. (ekaina), uzt. (uztaila), abu. (abuztua), ira. (iraila), urr. (urria), aza. (azaroa) eta abe. (abendua).

7. Laburdurari ez zaio atzizkirik erantsi behar; beraz, laburdura-
ren bukaerako puntuaren ondoren hutsune zuria besterik ez da onartzen
(ez marratxorik eta ez besterik, testu berezietan izan ezik).

Oker idatziak dira, hortaz, “*alkate jn.-k, *27. or.-ko, *fra.-rena, *etab.-etan” eta gisakoak. Horrelakoetan, oso-osorik idatzi behar dira hitzak: alkate jaunak, 27. orrialdeko, fakturarena, eta abarretan...

8. Ahal dela, ez da laburduraz hasi behar esaldia; ezta laburdura bera letra larriz hasten bada ere.

Kristo aurreko VI. mendean gauza bitxi asko gertatu zen.

Gauza bitxi asko gertatu zen K.a. VI. mendean.

Molde horiek hobesten ditugu, eta ez honako hau:

K.a. VI. mendean gauza bitxi asko gertatu zen.

9. Laburdura ahoskatzean, laburtutako hitza irakurri behar da: hitz osoa, eta ez laburdura bera.

Irakurri, *lebenengo(a)* edo *leben(a)* irakurri behar da “1”. laburduraz adierazitako ordinala. Beraz, *batgarren(a)* irakurtzea, jakina denez, *hogeita batgarren(a)*, *ebun eta batgarren(a)* eta horrelakoetan bakarrik da zuzena.

Bide beretik, “eta abar” irakurri behar da beti “etab.” laburdura

Neurri-izenak

1. Euskaraz ere nazioarteko arauak beteko dira zientziaren alorrean. Beraz, matematika, fisika, teknologia eta gisakoak idatziz lan-tzean, nazioarteko sinbolo estandarrak erabiliko dira neurri-izenak adierazteko.

Adibidez: mm (milimetro), cm (zentimetro), m (metro), km (kilometro), ml (mililitro), cl (zentilitro), l (litro), mg (miligramo), g (gramo), kg (kilogramo), km/h (kilometro orduko), m/s (metro segundoko), b (bit), B (byte), kb (kilobit), kB (kilobyte), MB (megabyte), Hz (hertz), MHz (megahertz), h (ordu), min (minutu), s (segundo), cal (kaloria), t (tona), W (watt), kWh (kilowatt-ordu), °C (gradu zentigradu nahiz Celsius gradu)...

Oharrak:

Neurri-izenen sinboloak punturik gabe idazten dira eta aurrean hutsune bat dutela.

Ikasmaterialetako testuetan, lerro berean agerrarazi behar dira neurriaren kopurua eta neurri-izenaren sinboloa (zutabe estu-estuetan izan ezik).

2. Joskerari dagokionez, neurri-izenaren aurrean idazten da kopurua. Kopurua *bat* zenbakia denean eta digitoz emana, orduan zenbaki hori ere aurrean idatziko da (baina ez da aurrean irakurriko, euskal tradizioaren arabera baizik).

Luzera: 5 cm [bost zentimetro]

Abiadura: 6 m/s [sei metro segundoko]

Temperatura: 20 °C [hogeia gradu]

Tirabidea: 1 km eta 200 m [kilometro bat eta berrehun metro]

Makila bakoitza 50 cm-koa bada, zenbat makila sartuko dira kilometro batean?

Makila bakoitza 50 cm-koa bada, zenbat makila sartuko dira 1 km-ean?

Kilo laurdenak 40 euro balio baditu, zenbat balio du kiloak / kilo batek?

Kilo laurdenak 40 euro balio baditu, zenbat balio du 1 kg-ek?

Bost euro lituzke orduan, euro baten ordeztu.

5 € lituzke orduan, 1 €-en ordeztu.

3. Deklinatzerakoan, neurri-izenen sinboloei marratxo erantsiko zaie aldian aldiko deklinabide-atzizkia.

Etiket 3 km-ra baduzu eskola, zenbat kilometro egiten duzu joan-etorri bakoitzean?

50 kg-ko karga bati eusteko, 0,5 cm-ko diametroa eta 1,5 m-ko luzera duen...

Uraren temperatura 82 °C bada, zenbat gradu falta zaizkio irakiten has-teko? Hau da, zenbat gradu falta zaizkio 100 °C-ra iristeko?

Egizu kontu 5 cm dela luzean eta 6 m/s-an doala...

Beraz, eman dezagun 5 cm-ko luzera duela eta 6 m/s-ko abiadura doala...

Ibilgailuak moteldu egin du abiadura: 6 m/s-tik 4 m/s-ra aldatu da 15 segundoan.

Zenbat kW-ekoa da?

- Honela irakurri behar dira abiaduraren kontuak:

Zenbat galderari dagokionean (hots, absolutiboan), 6 m/s irakurtzeko, bietara esan daiteke: “segundoko sei metro” nahiz “sei metro segundoko”. Berdin-berdin jokatuko da km/h sinboloarekin: 100 km/h “orduko ehun kilometro” nahiz “ehun kilometro orduko”.

Neurri-izen horiek deklinabide-atzizkia daramatenean, ordea, ez dago irakurketaren ordena aldatzeko aukerarik. Honela irakurri behar dira: 6 m/s-tik “segundoko sei metrotik”, 4 m/s-ra “segundoko lau metrora”, 100 km/h-an “orduko ehun kilometroan”...

Jakina, *zenbateko* galderari dagokionean, *-(e)ko* erantsi behar zaio: 6 m/s-ko abiadura “segundoko sei metroko abiadura” da, eta abar.

- Ikasmaterialetarako, *halako abiaduran* egitura hobesten eta gomendatzen dugu “ibili, joan” eta gisako aditzekin erabiltzeko; eta ez *halako abiaduraz* forma.

- Euskaraz, *zenbat* hitza erabiltzen da neurriak-eta galdetzeko; baita *zenbat* erroari *-(e)ko* atzizkia erantsita sortutako *zenbateko* izenlaguna ere. Lehenengoaren erabilera, oinarrizko *zenbat* soilarena, tradizio handikoa dugu; baina, gaur egungo testuak ikusita, ematen du *zenbateko* besterik ez dugula aukeran, hartaraino ari baita baztertzen *zenbat* soilari dagokion moldea.

Zenbat da karratu horren azalera, alde bakoitzak bi metro baditu?

Egizu kontu 5 m luze eta 26 cm zabal dela.

Zenbateko azalera du karratu horrek, alde bakoitza 2 m-koa badu?

Beraz, eman dezagun 5 m-ko luzera eta 26 cm-ko zabalera duela.

Zazpi kilometroko aldapa latz hura oinez igo behar.

Hamar kilometroko bide berri bat egiten ari gara.

Zer alde atera dio bigarrenari? Bi minutu eta hiru segundoren aldea, zazpi tantoren aldea, lau traineruren aldea, kana erdiko enbor baten aldea... [*zenbaten* aldea]

Zenbat da aurrekontua? Aurrekontua 1.000 € da/dira. Mila euroren aurrekontua.

Azken adibideko molde horren ordez (*zer* aurrekontu), *zenbateko* ere erabiltzen da sarri. Onargarria da, aldeak alde; baina *zenbateko* izenlaguna den kasuan. Bestela, *zenbat* erabiltzea da egokiena. Beraz, hobe da azken adibide horretako moldea erabiltzea (“*Zenbat* da aurrekontua? Aurrekontua 1.000 euro dira”) eta ez “*Zenbatekoa* da aurrekontua? Aurrekontua 1.000 eurokoa da”.

Egoki da ikasmaterialetan molde biak erabiltzea; izan ere, biak beharrezkoak baitira (eta hainbat aldiz ezinbestekoak) neurketak zehazteko eta bereizteko. Jokaera horri esker saihets daiteke, esate baterako, *zenbateko* formaren gehiegizko erabilera, sarritan nahasketa eta okerra eragiten duena:

Ekarri 3 euroko kafea! [kiloa hiru euroan saltzen dutena, **bakoitza**]

Ekarri 6 euroren kafea! [kiloa hiru euroan saltzen badute, bi kilo kafe, **guztira**]

Auzi hau hobeto aztertu beharra dago eta dagozkion mugak eta ondorioak erabaki. Bitartean, hona hemen *Orotariko Euskal Hiztegiko* corpusetik hartutako zenbait adibide, *-(e)ko* atzizkirik gabeko erabilerarenak:

380 metro luze zan eta 290 metro zabal (Anabitarte)

amabi-amalauna metro luze (Erkiaga)

ogei bat metro luze / bazan hamasei metro luze (Munita)

Zenbat legua bide egin biar dozak? (Otxolua)

24 ordutan 20 legua bide egin (Orixe)

bost legua bide baizik etzegoan (Lardizabal)

zortzi legua bide dagoelarik batetik bestera (Iztueta)

hamar sosen zorra pagatzen duenak (Barbier)

Zenbaten zorra dukezu? (Hiribarren)

Hor dugu, besteak beste, “txakur-txiki baten karameluak” dioen kantu zaharra ere. Hortaz, gure egunerokoan, adibidez, “30 euroren gasolina edo ezantza” eskatzea da egokiena.

Bestalde, eta nazioartean bestelako joerarik ageri bazaigu ere, honela ematen segituko dugu zenbakiak: batetik, milatik gorako zenbaki osoetan, digitoak hiruak multzokatuz eta puntuz bereiziz; bestetik, zatiki hamartarrak komaz bereiziz.

15.756.552,1724 15[puntu]756[puntu]552[koma]1724

100 € = 16.638,6 pezeta 16[puntu]638[koma]6[hutsunea]pezeta

Ehunekoak

1. Ehunekoa digitoz idazten da, % sinboloaren eskuin aldean kopuru zehatza emanez eta bien artean hutsune bat utziz.

% 7 % 15 % 82 % 7,3 % 11,45

2. % sinboloaren euskal izena *ehuneko* da. Hortaz, *ebunetik*, *ebunetarik* eta gisako hitzak letraz letra baizik ezin dira idatzi; ez baita kasu bera.

3. Ehunekoa deklinatzeko, % sinboloaren eskuinean digitoz adierazitako zenbakia deklinatu behar da, kasuan kasuko atzizkia erantsiz marratxorik gabe.

Irabaziak % 7tik % 15era igo arren, % 7,3ko etekina atera du bazkideen % 82k.

4. Ehunekoa *zenbat* hitzaren eredian deklinatzen da eta, beraz, mugagabea jokatzen da; salbu eta, aurretik emandako ehuneko kopuru(ar)en osagarri delako, mugatu singularrean jokatzen den kasuan.

Kontinentearen % 5 izotza da. (eta ez “% 5a”)

Udalak % 35 ordaintzekotan, Foru Aldundiak % 25, eta gainerako % 40a geuk.

5. Ehunekoak singularrean egiten du aditzaren komunztadura.

Ikasleen % 78k garaiz egin ditu lanak. Bezeroen % 57,32 pozik dago.

Sagarren % 31 kanpotik ekartzen dute. Gaixoen % 7ri gertatu zaio.

Oharra:

Testuinguru bereziren batean, pluraleko erreferenteak berera ekar dezake komuntadura.

Zuetariko % 87k ondo gainditu du/duzue azterketa.

Zein bere hizkuntzan mintzatu zen/ziren hizlarien % 20.

6. Ehunekoa dagokion hitzaren ondoren idatzi behar da % sinboloa.

Botoen % 24 bereganatu du alderdi horrek.

Eta ez

* % 24 boto bereganatu du alderdi horrek.

Baina zuzenak dira honelakoak:

Ehunetik (ehunetarik) hogeita lau boto bereganatu ditu alderdi horrek.

% 1,4 igo dira prezioak. (eta ez “% 1,4an”)

Ordinalak

1. Zenbakia letraz letra idatziz gero, ordinalari dagokion *-garren* atzizkia ere letraz letra idatzi behar da beti.

Hirugarren mundua

Bigarren aukera

Zazpigarren zigilua izeneko filma

2. Zenbakia digitoz edo zifra erromatarrez ematen denean, puntua erabili behar da *-garren* atzizkiaren laburdura gisa. Orduan, beraz, ezin idatziko da letraz.

18. arauko 2. atala

Euskaltzaindiaren XV. biltzarra Bilbon eta Baionan egin zen

Donostiako VI. zinemaldia aurrekoa baino hobea izan omen zen

3. Ordinalaren *-garren* atzizkia aldiro eta beti adierazi beharko da (letraz nahiz puntuz) elkarren segidan datozen zenbaki bati baino gehiagori dagokienean.

Ikus 14. or.

Ikus 2. eta 3. atalak

Ikus 14.-19. or.

Ikus 14., 16. eta 19. or.

Araudiko bigarren, hirugarren, seigarren eta hamargarren atalak aztertuko dira.

XVII. eta XVIII. mendeetan gerra ugari izan zen Europan.

4. Ordinalaren *-garren* atzizkia letraz nahiz puntuz adierazi, marratxorik erabili gabe erantsi behar zaio beti deklinabide-atzizkia.

Aurtengo zazpigarrena da.

Sailkapeneko 14.etik 18.era bitartekoak falta dira.

5. Sailkapenak eta zerrendak taula erara idaztean, puntuz adierazi behar da beti ordinalaren *-garren* atzizkia. Horrelakoetan, ez da ezer jarri behar puntuaren ondoren: ez mugatzailerik eta ez marka tipografikorik.

EGOKI	DESEGOKI	DESEGOKI
1. Urlia	1.a Urlia	1.- Urlia
2. Sandia	2.a Sandia	2.- Sandia
3. Berendia	3.a Berendia	3.- Berendia

6. Datari dagokion urtea idaztean, ez da erabili behar *-garren* atzizkia (ez letraz eta ez puntuz), urte kopuruaren ondoren *urte* hitza idazten denean izan ezik (eta orduan, nahitaez erabili behar da *-garren* atzizkia).

1982an (eta ez “1982gn”, ez “1982gn.”, ez “1982.ean”)

1664ko udaberrian

2001eko abenduaren 13an

1952. urtean, 1952an

Oharra:

Urtearen zenbakia bera punturik gabe idatzi behar da. Ikus goiko adibideak.

Bestalde, urte hamarkadak adierazteko, molde hau da egokia:

60ko hamarkada (eta ez “60. hamarkada”)

Bi puntuen ondorengo idazkera

1. Bi puntuen ondoren lerro berean segitzen denean, honako irizpide hauen arabera ebazten da letra xehez ala letra larriz idatzi behar den:

- Esaldi osoko aipamenak letra larriz hasi behar dira.

Gogoratu haren hitzak: “Herri oso bat itzultzaile bihurtzeak baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera”.

- Esaldi oso baten zati baizik ez diren aipamenak, letra xehez.

Gogoratu zer esan zigun: “bildu eta hitz egitea” dela premiazkoena.

- Aurreko zatiaren osagarriak letra xehez hasi behar dira.

Hizkuntza hori ez da bere buruaren jabe: besteren legeak dauzka gogoan.

Oharra:

Bi puntuen ondorengo osagarriak esaldi bat baino gehiago baditu, orduan, paragrafo berria hasi nahi ez bada, bi puntuen ordezkari puntu bakarra idaztea da irtenbidea.

1. Honela gertatu zen istripua. Autoa bere bidetik zetorren, baina azkarregi. Errepidea bustita zegoen. Oinezkoa errepidea zeharkatzen hasi zen, eta...

2. Honela gertatu zen istripua:

Autoa bere bidetik zetorren, baina azkarregi; eta errepidea bustita zegoen. Oinezkoa errepidea zeharkatzen hasi zen, eta...

OKERREKO ANTOLAKETA

3. Honela gertatu zen istripua: autoa bere bidetik zetorren, baina azkarregi; eta errepidea bustita zegoen. Oinezkoa errepidea zeharkatzen hasi zen, eta...

2. Bi puntuen ondoren paragrafo berria hasten denean, honako irizpide hauen arabera ebazten da letra xehez ala letra larriz idatzi behar den:

- Gutun hasierako diosal eta deikien ondoren, letra larriz hasi behar da.

Agur, irakurle maitea:

Zuri eskerrak eman beharrean gara, berriro ere, gure liburuak erosten segitzeagatik.

- Zerrendak letra larriz hasi behar dira esaldi osoak dituztenean.

Datorren astearteko bileran egitekoak:

- Aurreko bileraren agiria irakurri eta, ongi irudituz gero, onartu.
- Hurrengo jardunaldiko programaren xehetasunak aztertu.
- Norberak dakartzan proposamenak aurkeztu.

- Zerrendak letra xehez hasi behar dira esaldi osokoak ez direnean.

Hauek dira alorrez alorreko euskalgintzako profesionalak:

- irakasleak (hezkuntza orokorrekoak nahiz euskaltegietakoak)
- kazetariak
- itzultzaileak, idazleak eta argitaratzaileak
- administrazioko langileak
- ...

Oharra:

Horrelakoetan ez da punturik jartzen bukaeran.

Barra

1. Bertsoak, olerkiak edota abestien letrak lerro betean idazten direnean, barra erabili behar da bertso-lerroak bereizteko.

Abanikodun mulatak / gauari haize egiten, / musiken aire nagiek / odola erretzen zuten.

Oharrak:

Horrelakoetan, barraren alboetan hutsune bana utzi behar da.

Ez da zuzena aurreko lerrotik datorren barraz hastea hurrengo lerroa.

2. Bata bestearen segidan idatzitako hitzen artetik bat aukeratu beharra-edo dagoela adierazteko, barra erabiltzen da. Baita aurkaritza edo nabarmentzeko ere.

Gutun orokorretako agurra *Bezero jauna/andrea* da singularrean idazten zaienean, eta *Bezero jaun-andreak* pluralean idazten zaienean.

Oharra:

Barraren alboetan hutsune bana utzi behar da, baldin eta alde bateko nahiz besteko aurkariak-edo hitz bat baino gehiagokoak badira. Ikus honako adibide hau:

Idazlea, *mendia/mundua*, *luma/ezpata*, *izan/ukan* eta gisakoez mintzatu ondoren, metafisikan murgildu zen *hutsune hutsa / hutsune betea* harturik gaitzat.

3. Herri bakar bat esateko bi izen erabiltzen direnean (gehienean, bata bestearen itzulpen modura edo), barra tartekatzen zaie.

Barraz idazten dira Donostia/San Sebastián, Vitoria/Gasteiz, Lizarra/Estella eta abar; baina ez, Ezkio-Itsasoren kasuan bezala, bi herri elkartzean sortutako leku-izenak.

4. Legeen eta dekretuen izenetako zenbakien artean barra erabiltzen da, alboetan hutsunerik utzi gabe.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen arabera jokatu da.

222/2001 DEKRETUA, urriaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organikoa ezartzen duena.

5. Barra erabiltzen da aritmetikako zatiketak eta zatikiak adierazteko ere, eta zenbait neurri-izenen nazioarteko sinboloetan.

$\frac{2}{3}$ (bi zati hiru / bi heren), $\frac{4}{7}$ (lau zati zazpi / lau zazpiren)...

6 km/h (orduko sei kilometro), 4 m/s (segundoko lau metro)...

6. Zenbait gaitan agertzen diren erlazio multzoak aditzera emateko, barra erabiltzen da.

Begiratu iaz saldutako automobilen *urteak/prezioa* grafikoari.

Adierazi *haurdunaldiko astea / fetuaren pisua (kg-tan)* funtzioa.

Marratxoa

1. Lerro bukaeran, hitzak silabaka zatitu behar dira; baina silaba bakarreko zatirik utzi gabe inongo lerrotan. Hitzaren lehen zatiari marratxoa eranstean zaio.

Oharrak:

Lerrokada bat orrialde bitan zatitu beharra egokitzen denean, gutxienez bi lerro beteko zatia utzi behar da orrialde bakoitzean. Horrez gainera, orrialdea hasteko ez da onartu behar hitz zatirik, neurri-izenen sinbolorik, laburdurarik eta gisakorik. Zutabeak salbuespen dira.

2. Hitz-elkarketan marratxoa erabiltzen da, hala erabakita dagoen kasuetan (ikus eranskina, “Hitz elkartuen idazkera” izenekoa).

3. Lerro-bukaerako marratxoa hitz-elkarketarena izanez gero, ez dago marratxo hori errepikatu beharrik hurrengo lerroaren hasieran.

4. Hitz elkartuaren osagaietako bat bakuna ez denean, errepikatu egin behar da marratxoa.

Lehen osagaia anizkuna denean, honela, adibidez: edari- eta izozki-saltzaileak.

Bigarren osagaia anizkuna denean, honela: auto-saltzaile eta -konpon-tzaileak.

5. Izen berezien kasuan, beharrezkoa ez denean, marratxorik ez erabiltzea gomendatzen da. Nahasgarri gerta daitezkeen izen berezien arazoa bi eratara konpon daiteke:

- a) Deklinabide-atzizkirik gabe idatziz pasarteko lehen aipamenean, izena zein den argi uzteko.

HASIERAN

GERORA

Jon gureak esandakoa

Jonek esandakoa

Jone gureak esandakoa

Jonek esandakoa

Lafitte euskaltzainaren iritziz

Lafitteren iritziz

Lagun Onak taldeko jokalaria

Lagun Onakeko jokalaria

- b) Izenaren eta deklinabide-atzizkiaren artean marratxoa jarritz pasarteko lehen aipamenean.

HASIERAN

GERORA

Jon-ek esandakoa

Jonek esandakoa

Jone-k esandakoa

Jonek esandakoa

Lafitte-ren iritziz

Lafitteren iritziz

Lagun Onak-eko jokalaria

Lagun Onakeko jokalaria

Bibliografia nola aipatu

1. Liburuetan, tesietan eta abarretan bertako atal berezia denean, honela adieraziko da Bibliografia:

1. Idazlearen deitura(k) (inprentan, letra larri txikiz) [koma] eta izena [bi puntu]

2. Idazlanaren izenburua (letra etzanez) [koma]

3. Argitaletxearen izena [koma] eta herria [koma]

4. Argitalpen-urtea [puntu]

Hona hemen zenbait adibide, ohikoenetik hasita:

ARRATIBEL, Joxe: *Kontu zaarrak*, Editorial La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1980.

Egilea izenordez aipatzen denean:

XALBADOR, Fernando Aire: *Odolaren mintzoa*, Auspoa, Tolosa, 1976.

Egilea bakarra ez denean:

ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello: *Idazkera-liburua*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1993.

Egileak hiruzpalau baino gehiago direnean:

ZENBAITEN ARTEAN: *Itzulpen antologia*, EIZIE, Donostia, 1998.

Egilea ezezaguna denean:

IZENGABEA: *De Geographia (Anonymus Ravenatis)*, Paris, 1688.

Lehen argitalpena ez denean:

PUJOL, Josep; SOLÀ, Joan: *Ortotipografia*, 2. argit., Columna, Barcelona, 1995.

Izenburuaz gainera, izenburuordea ere baduenean:

JAUREGI, Luis: *Xenpelar bertsolaria. Bizitza ta bertsoak*, Itxaropena, Zarautz, 1958.

Izen bereko liburu bat baino gehiago direnean:

FRAZER, James George: *Urrezko abarra*, 1. lib., Klasikoak, Bilbo, 1995.

Jatorrizko argitalpena eta itzulpena aipatu nahi direnean:

ONG, Walter J.: *Orality and literacy*, Methuen, London, 1982 / *Oralidad y escritura*, Editorial Fondo de Cultura Económica, México, 1987.

Itzultzailearen izena ere aipatu nahi denean:

FRAZER, James George: *Urrezko abarra*, 1. lib., Klasikoak, Bilbo, 1995 (euskaratzailea, Iñaki Iñurrieta).

2. Bibliografian sartu nahi dena argitalpenaren atal bat besterik ez denean, *in* idatzi behar da liburu osoaren aipamenaren aurrean:

BARANDIARAN, Joxe Migel *in* Ugalde, Martin: *Hablando con los vascos*, Ariel, Barcelona, 1974.

Aldizkariaren kasuan, *in* idazteaz gainera, alearen zenbakia eta orrialde-bitartea ere zehaztu egin behar dira; baina ez herriaren izena:

Artikulua-edo denean:

MITXELENA, Koldo: “Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia”, *in* Muga, 19 (1982), 52-64.

Elkarrizketa-edo denean, ez dago izenburua nahitaez aipatu beharrik:

OTEIZA, Jorge *in* Pamiela, 15 (1993), 17-23.

Beraz, *in* horren ondorengoa honela osatzen da: aldizkariaren izena (letra arruntez) [koma], alearen zenbakia, data (parentesi artean) [koma] eta orrialde-bitartea (baina nazioartean egiten den bezala: alegia, ordinaleko *-garren* puntuz ordezkatu gabe).

Oharra:

Aldizkariaren izena letra arruntez idaztea salbuespena da. Horregatik idatzi behar da, esate baterako, *Zutabe* aldizkaria, baina *in* *Zutabe*.

3. Testuarekin batera doazenean, honela egiten dira orrialdean orrialdeko aipamen bibliografikoak:

a) Testuaren barruan txertatuta doazenak [batere punturik gabe]:

Ipuin horien lehenengo argitalpena zera da: Joxe Arratibel, *Kontu zaa-rrak* (Bilbo, 1980). Ortografia batuan agertutakoak beranduagokoak dira.

Hiztegitzaren egoera zein zen jakiteko, irakur Koldo Mitxelenaren “Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia”, *in* Muga, 19 (1982), 52-64, eta bilatu artikulu horrek eragin zituen erantzun min eta saminak.

Oharra:

Titulurik gabe eta orrialde-zenbakirik gabe ere txerta daitezke artikuluen aipamen bibliografikoak:

Gogoratu Fishmanek esandakoak hizkuntzen hedapenaz eta arriskuan dauden hizkuntzetarako hizkuntza politikaz. Irakur, besteak beste, Joshua Fishman *in* *Zutabe*, 15 (1987), eta *Jakin* aldizkariaren 48. zenbakikoak.

b) Testutik aparte, orri barrenean doazenak, testuaren barruan txertatutako ohar-marka (izarñoa, zenbakia...) aurrean dutela eta testukoa baino neurri txikiagoko letraz:

(1) MITXELENA, Koldo: *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia, 1988.

(2) Garai hartako Bizkaiko lexikoaren eta atsotitzen berri jakiteko, irakur Juan Gorostiaga Bilbaoren *Vocabulario del refranero vizcaíno de 1596* (Salamanca, 1953), eta horrek ere lagunduko dizu, agian, orduko bizi-moduari eta pentsakerari buruzko azterketa osatzen.

4. Aipamen bibliografiko formalaren ordez egile edota obra jakin baten erreferentzia laburra ematekotan testu aipatuaren barrenean, honela eman:

a) egilearen izen-deiturak (osorik nahiz laburturik)

Geroak esan beza: «Herri bat izan zen». Edota hats emaiogun, honetan irauin dezan.

Orixe

b) obraren izenburua (dagokion grafian)

Geroak esan beza: «Herri bat izan zen». Edota hats emaiogun, honetan irauin dezan.

Euskaldunak

c) egilearen izen-deiturak eta obraren izenburua, komaz bereizirik

Geroak esan beza: «Herri bat izan zen». Edota hats emaiogun, honetan irauin dezan.

Orixe, *Euskaldunak*

ERANSKINA

Hitz elkartuen idazkera

1. Euskaltzaindiak bereiz idaztekoak direla esana duen hitz elkartuak bereiz idatziko dira. Hortaz, honako elkarte moduok bereiz idaztekoak dira:

- a) **Aposizioak:** Bidasoa ibaia, Aralar mendia, Larramendi kalea, Arriaga antzokia, Axular liburutegia, *Euskalzale* albistaria, Auspoa liburutegia, Gerediaga elkartea, Xalbador ikastegia, Uztapide bertsolaria; izeba Maria, aitona Domingo, arreba Klara, maisu Juan; B eredua, D dokumentua...
- b) **Egin, eragin, eman eta harturekin** osatzen diren aditz-elkartek: hitz egin, hots egin, huts egin, lo egin, negar egin, barre egin, oihu egin, berba egin; negar eragin, barre eragin, leher eragin; beldur eman, hots eman, kontu eman, su eman; min hartu, kargu hartu, parte hartu, kontu hartu, Jauna hartu...

Loturik idatzi beharreko salbuespenak: antzeman, atzeman, hauteman, hitzeman; hitzartu, lokartu, onartu... (ikus *Hiztegi Batua*).

- c) **Etkez etxe** ereduko bikoiztapenak (lehen osagaia deklinaturik, bigarrena ez): aurrez aurre, gainez gain, gizaldiz gizaldi, herriz herri, parez pare, pausoz pauso; adarrik adar, bazterrik bazter, eskurik esku, kalerik kale, sasirik sasi; menderen mende, bururen buru...
- d) **Egin berri** eredukoak: amaitu berri, esan berri, hasi berri, sartu berri, sortu berri... Loturik idazten diren “ezkonberri” modukoak salbuespen dira (ikus *Hiztegi Batua*).
- e) Mahai **gainean**, etxe **aurretik** gisako postposizioak: esku artean, gerra aurretik, aste barruan, hiri barnera, ikastetxe mailan, geltoki ondora, kable bidez; Urola aldeko (herriak), eskualde mailako (zerbitzua), denda osteko (almazena)...

Loturik ematen diren “nazioarteko, hiriarteko, jendaurrean, jendaurreko, prentsaurreko...” formetarako, ikus *Hiztegi Batua*.

- f) Bigarren osagaia **bila**, **eske** edo **falta** duten elkarteak: ur bila, bake bila, ardo bila, ogi bila; diru eske, barkamen eske, argibide eske, aholku eske; egur falta, harreman falta, lo falta, batasun falta...
- g) Lehen osagaia **erdal**, **euskal**, **giza**, **itsas** duten elkarte berriak: erdal gramatika, erdal itzulpena, euskal olerkiak, euskal idazleak; giza zientziak, giza adimena; itsas garraioa, itsas ekologia...

Forma zahar-ihartuetarako, ikus *Hiztegi Batua*.

2. Euskaltzaindiak marratxoz idaztekoak direla esana duen hitz elkartuak marratxoz idatziko dira. Hortaz, honako elkarte moduok marratxoz idaztekoak dira:

- a) **Gorri-gorri(a)** ereduko bikoiztapen indargarriak (lehen osagaia deklinabide-atzizkirik gabe dutenak): labur-labur (azaldu), adi-adi (egon), erne-erne (gidatu), ozta-ozta (entzun); (hitzaldi) luze-luzea, (egun) argi-argia, (euskaldun) garbi-garbia, (bazkari) arin-arina; alfer-alferrik (saiatu), gazte-gazterik (hil), zabal-zabalik (utzi), doi-doia (jasan), gaur-gaurkoz, zuzen-zuzenean, azken-azkenean, bete-betea, bihotz-bihotzetik, hasiera-hasieratik, zin-zinez, gain-gainera; gehien-gehiena(k); asper-asper egin, dagoen-dagoen(ean)...
- b) **Apurka-apurka** ereduko bikoiztapenak (bi osagaiek atzizki berbera): tarteka-tarteka, banaka-banaka, launaka-launaka; aldian-aldian, ezarian-ezarian; egunero-egunero, astero-astero; emeki-emeki; polito-polito; astiro-astiro...
- c) **Seme-alabak, zuri-gorriak** ereduko elkarteak: anai-arrebak, aitona-amonak, aita-amak, senar-emazteak, zeru-lurrak, galde-erantzunak, maisu-maistrak, izen-deiturak; txuri-urdin, gazi-geza, luze-zabal, argi-ilun; han-hemen, ezker-eskuin, harat-honat; laztan-musuka, negar-zotinka; sartu-irten, joan-etorri; hamar-hamaika (lagun), gutxi-asko...
- d) **Barra-barra, plisti-plasta eta zehatz-mehatz** eredu-koak: bor-bor, dar-dar, dir-dir, diz-diz, kili-kili, mara-mara, pil-pil, txin-txin, txio-txio(ka); binbi-banba, dinbili-danbala, hinki-hanka, kili-kolo, tirriki-tarraka, zirti-zarta; auzi-mauzi, duda-muda, erran-merran, handi-mandi, nahas-mahas, tarteka-marteka...

Loturik idatzi beharreko salbuespenak: esamesa, tirabira, tximista, zirriborro, zurrumurru; dardara, dirdira, distira, kuku, marmar, ttuntun... (ikus *Hiztegi Batua*).

- e) **Ezkio-Itsaso** ereduko leku-izen elkartuak: Abanto-Zierbena, Gernika-Lumo, Lasarte-Oria, Biurrun-Olkotz, Etxarri-Aranatz, Arratzu-Ubarrundia, Iruraitz-Gauna, Ainhize-Monjolose, Ürrüxtoi-Larrabile...

Bi herri elkartzean sortutako leku-izen horiek marratxoz idatzi behar dira; baina, Donostia/San Sebastián eta gisakoetan, herri bakar bat esateko bi izen erabiltzen direnean (gehienetan, bata bestearen itzulpen modura edo), barra idatzi behar da.

3. Euskaltzaindiak loturik idaztekoak direla esana duen hitz elkartuak loturik idatziko dira. Hortaz, honako elkarte moduok loturik idaztekoak dira:

- a) **Jarleku** ereduko elkarteak (aditz-erro + izen): egongela, aldagela, abiaburu, helmuga, idazmakina, mintzapraktika, salneurri, irakasmila; agerbide, eskabide, jokabide, komunikabide; agerraldi, egonaldi, emanaldi; galdegai, irakurgai, osagai; pausaleku, sorleku; biltoki, geltoki, erakustoki; jokamolde, pentsamolde; aztergune, lehiakide, sortalde, idazlan, ikerlan; ikasgela, ikastetxe...

Juntura ilun geratzen den kasuetan, marratxoz idaztea hobesten da: ibil-leku, ikas-sail, irakas-sistema... (ikus *Hiztegi Batua*).

- b) **Aldagaitz** moduko izaera-elkarteak (aditz-erro + izenondo): konformagaitz, pairagaitz, uxagaitz, herdoilgaitz; asmaezin, nekaezin, bateraezin, pentsaezin; ulerterraz, moldaerraz; isurbera, minbera...

- c) **Odolustu** moduko aditz-elkarte arruntak: indargaldu, uranditu, gaitzetsi, antzaldatu, biziberritu, indargabetu; azpimarratu, aurreikusi...
- d) Bigarren osagaia **-gin, -gile, -zain, -zale, -dun, -gabe** edota **-gintza, -za(i)ntza** duten elkarteak: hargin, ikazkin, zurgin, uztargin; bertsogile, eltzegile, langile, liburugile; mugazain, diruzain, bidezain, atezain; bertsozale, haragizale, aurrerazale, neskazale; dirudun, arduradun, bizardun; lotsagabe, mugagabe, zentzugabe; gaztagintza, barkugintza, burdingintza; egurgite, etxegite, talogite; gaixozaintza, ertzaintza, liburuzaintza...
- e) Bigarren osagaia **-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -(k)ide, -(k)ume, -orde** duten izen-elkarteak: agintealdi, belaualdi; batzordeburu, sailburu; legegizon, elizgizon; argiune, naturagune, zerbitzugune; baliokide, solaskide; kalekume, bulegokume; izenorde, sailburuorde...

Loturik idazten dira, orobat, bigarren osagaia **-gai** edo **-alde** duten hainbat elkarte ere: “abadegai, erregegai, aztigai” modukoak edota “industrialde, eskualde, lurralde, hegoalde, iparralde, ekialde” gisakoak.

- f) Lehen osagaia **aurre-, azpi-, gain-** edo **sasi-** duten izen-elkarteak: aurreiritzi, aurrelan, aurreproiektu; azpiegitura, azpimarra, azpimultzo; gainazal, gainbalio, gainkarga, sasijakintsu, sasieskola, sasimediku... Salbuespen diren formetarako, ikus *Hiztegi Batua*.

Baina lehen osagaia **erdi** duten izen-elkarteak, bereiz: Erdi Aro, erdi inozo, erdi maila... Salbuespen diren formetarako (erdialde, erdibide, erdigune...), ikus *Hiztegi Batua*.

- g) **Lauburu** ereduko elkarteak (zenbatzaile + izen): hirudar, bostortz, hamalauzango, ehunzango; adarbakar, asmobakar, begibakar, zelulabakar...

4. Euskaltzaindiak marratxoz nahiz bereiz idazteko aukera emana duen hitz elkartuak marratxoz idaztea hobesten eta gomendatzen da ikasmaterialetan. Eskola-liburuen eta irakaslanaren nondik norakoa kontuan izanik, motibo sendoak daude bide jakin hori hobesteko. Besteak beste, honako hiru hauek:

1. Doinuera zuzena zurkaizten laguntzea, egunetik egunera zarpailduagoa ageri baita ikasle-irakasleen ezpainetan.
2. Bateratze-indarrak bultzatzea egungo aniztasun-giro nahasian.
3. Irakurleari garaiz iragarri eta ongi jasotzen laguntzea sintagma-egitura bakoitza eta, are, esaldi atal bakoitza.

Hortaz, honako elkarte modu hauek marratxoz idaztekoak dira ikasmaterialetan:

- a) **Eguzki-lore** ereduko izen-elkarte arruntak. Atal honetan sartzen dira, bereziki, hiztunak edo idazleak unean-unean eratzen dituen izen-elkarte berri, bizi, ugariak: akordeoi-soinu, lan-hitzarmen, arau-proposamen, merkatari-mundu, gizarte-bizitza, arazo-iturri, sakontze-ikastaro, osasun-egoera, elebitasun-formula, garapen-maila, eska-bide-orri...

Hobespen orokor horren salbuespen, bada hitz multzo bat elkarketaren bigarren osagai izateko berezitua. Halakoak bereiz idaztea hobesten dugu. Hiru azpisailetan (**sorta**, **puska** eta **mota**) bana daitezke:

- **lore sorta** ereduko multzo-elkarteak; alegia, bigarren osagaia honelakoren bat dutenak:
 - aldra, andana, bikote, ilara, kantitate, kopuru, mordo, multzo, oste, pare, pila, sail, sorta, talde, tropel...

Uso aldra, jende andana, kantari bikote, auto ilara, diru kantitate, euro kopuru, liburu mordo, ikasle multzo, jende oste, idi pare, diru pila, etxe sail, galdera sorta, neska talde, zaldi tropel...

- **ogi puska** ereduko zati-elkarteak; alegia, bigarren osagaia honelakoren bat dutenak:
 - ale, apur, atal, atomo, ioi, izpi, molekula, pittin, pixka, poxi, puska, pusketa, tanta, zati...
7.354 hondar ale, ogi apur, gorputz atal, bi kloro atomok osatzen dute kloro molekula, sodio ioia, belar izpi, haize pittin, gatz pixka, iraupen poxi, lan puska, ogi pusketa, esne tanta, lukainka zati...
- **eskola mota** ereduko molde-elkarteak; alegia, bigarren osagaia honelakoren bat dutenak:
 - era, fase, klase, modu, molde, mota...
Zibilizazio era, ilargi fase, arbola klase, banaketa modu, politika molde, arrain mota...

OHARRA: Esanahi bat baino gehiago izan dezaketen **sorta, puska** edo **mota** ereduetako hainbat hitz-elkarte ez dira **eguzki-lore** arruntetatik bereizten errazak. Adibidez, **neska taldeak** neska asko adierazten du; baina **zuzendaritza-taldeak** ez du zuzendaritza asko adierazten, zuzendaritzaz arduratzen den **taldea** baizik; eta **futbol-taldeak** ere ez du futbol asko adierazten, futboleko jokatzen duen **taldea** baizik. Beraz, **eguzki-lore** moduko hitz-elkarte arruntak dira **zuzendaritza-talde** eta **futbol-talde** gisakoak, eta, gure proposamenean, marratxoaz lotuta idaztekoak.

Antzeko arrazoiengatik, aukeran uzten da bigarren osagaitzat **maila** (edo **gradu**) daramaten elkarteak marratxoaz lotuta idaztea.

Kontuan harturik ez dela beti erraza izaten sail batekoak eta bestekoak bereiztea, malgu hartu behar dira alor horretako hobespenak.

b) **Kale-garbitzaile, adar-jotze** edo **ate-joka** ereduko elkarte sintetiko arruntak (bigarren osagaia aditz-izenkia dute, eta lehena, bigarrenaren osagarri zuzen). Halakoak ere oso ugariak dira:

- egile-elkartek: **kale-garbitzaile**, bide-urratzaile, harri-jasotzaile, odol-emaile, soinu-jole, eguraldi-iragarle; aho-gozagarri, bihotz-hunkigarri, begi-mingarri; euri-neurgailu, orri-zulagailu; behor-gidari, erbi-ehiztari...
- ekintza-elkartek: **adar-jotze**, zikiro-jate, odol-isurtze, denbora-galtze; diru-bilketa, adimen-azterketa; txosten-prestaera, hitz-osaera; fede-ukapen, lan-eskaintza...
- jardun-elkartek: **ate-joka**, aho-zabalka, errosario-esaka; kantu-kantari, kontu-kontari...

OHARRA: Osagai biak letra larriz hasten direnean, hitz elkartuak marratxorik gabe idaztea hobesten eta gomendatzen da ikas-materialetan ere, aukerakoa denean. Errotuluetan, zenbait titulutan eta izendapenetan agertzen da hori, batez ere:

Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia, Garraio Zuzendaritza, Medikuntza Fakultatea, Bertsolari Txapelketa, Zinema Jaialdia, Herri Literatura batzordea...

ODOL EMAILEEN BATZARRA MEDIKUNTZA FAKULTATEAN

FORU ALDUNDIAREN LAN ESKAINTZA AZTERGAI

5. Euskaltzaindiak marratxoz nahiz loturik idazteko aukera emana duen **sudurluze** ereduko hitz-elkarte arruntak, antzemangaitzak ez direnean, loturik idaztea hobesten eta gomendatzen da ikasmaterialetan: (neska) sudurluze, (zezen) adarmotz, (agure) burusoil, (mutiko) musugorri, (marinel) odolbero, (adiskide) eskuzabal, (esparru) angeluzuzen, (teilatu) puntazorrotz...

6. Elkarketako lehen osagaiak berezko “-a” duen kasuan, Euskaltzaindiak aukera bat baino gehiago utzi du. Halakoetan, hitz elkartua “-a” itsatsia kendu gabe eta marratxoz idaztea hobesten eta gomendatzen da ikasmaterialetan.

- Bai amaieran **-ia** dutenetan: egia-maila, industria-sare, familia-liburu, ortografia-arau, geografia-izen, metodologia-arazo, infografia-kontu, astronomia-datu, filosofia-iturri, sinonimia-maila, toponimia-ikerketa, berritsukeria-liburu, indarkeria-arazo...
- Bai **hizkuntza, kultura, literatura** nahiz **natura** osagaia dutenetan: hizkuntza-ariketa, hizkuntza-eskakizun, kultura-gaitasun, kultura-oinarri, literatura-lehiaketa, literatura-sari, natura-babesgune, natura-zientzia... Besteko **arnasa/arnas, burdina/burdin, eliza/eliz** kasuetan, ikus *Hiztegi Batua*.
- Bai gainerako elkarte berri guztietan: eskola-liburu, hezkuntza-mundu, jaiotza-kontrol...

7. Hitz-elkarketak berez dakar berrelkarketarako aukera. Bide hori egokia da inoizka (hor dugu “artobero-usaina”, esaterako), baina gehienetan irakurlearen kalterako izaten da: bihurriak dira «zerga-bilketeta-bulegoa, udal-kirol-erakundea, auto-saltzaile-elkartea, fisika-hastapen-baldintzak» eta antzekoak. Horrelakoetan, oro har, azkena elkartutako hitza hautatu, hitz-elkartetik atera eta sintaxi arruntera ekartzea hobesten eta gomendatzen da ikasmaterialetan: «zerga-bilketarako

bulegoa, udalaren kirol-erakundea, auto-saltzaileen elkarte, fisika(z)ko hastapen-baldintzak, kobre-eztainu aleazioa» eta abar.

Oharra:

Azkena elkartutako hitza, jakina denez, amaierakoa izan daiteke (zergabilketarako bulegoa, auto-saltzaileen elkarte...) nahiz hasierakoa (udalaren kirol-erakundea, fisika(z)ko hastapen-baldintzak...).